

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Diputatuen Kontseiluak 2016ko abuztuaren 3ko aparteko bilkuran onartutako xedapenen laburpena

– **Foru dekretuak:**

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 56/2016 Foru Dekretua, abuztuaren 3koa, aldatzen duena uztailearen 22ko 36/2014 Foru Dekretua, zeinek arautu zuen mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere.

NEKAZARITZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 57/2016 Foru Dekretua, abuztuaren 3koa, onartzen dituena nekazaritza, ustategien eta landa bideen sarbideetarako laguntzak arautzen dituzten oinarriak, 2015-2020 aldirako EAEko Landa Garapenerako Planaren baitan; baita laguntza lerro horren 2016rako deialdia ere.

– **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 495/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, Eusko Jaurlaritzari proposatzen diona, Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera, Jose Antonio Galera Carrillo Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua Gorbeia Parke Naturaleko Patronatuaren lehendakari izendatu dezala.

Diputatuen Kontseiluaren 496/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, ebazten duena irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeei dirulaguntzak ematea lehiaketa bidez, Giza eskubideen eta memoria historikoaren arloko sustapen, zabalkunde eta gaitze proiektuak garatzeko.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 497/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, Izarrako Administrazio Batzarrari zuzenean dirulaguntza ematen diona Trenbide Azpiegituren Administrazioa (ADIF) enpresaren eraikin abandonatua eta erabilerarik gabea eraisteko lanak egiteko; eraikin hori antolamenduz kanpo dago udalerrri horretako hiri antolamendurako plan orokorraren arabera.

Diputatuen Kontseiluaren 498/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren errekerimendua oinarri hartuta jarduten duena, ministerio horren urriaren 1eko AP/2105/2012 Aginduaren 19. artikuluan xedatutakoari dagokionez.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 499/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, onartzen duena Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren zerbitzura dauden funtzionarioen plazen enplegu eskaintza 2016rako.

Diputatuen Kontseiluaren 500/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, zeinaren bidez bi hilabetez luzatzen baita Laudioko Lamuza parkean dagoen Musika Etxea birgaitzeko obrak, azaroaren 17ko 643/2015 Erabaki bidez esleituak, gauzatzeko epea.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 501/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, aldatzen duena "martxoaren 18ko 145/2014 Erabakiaren bidez "SVRNE Mutua de Seguros y Reaseguros a Prima Fija" enpresari esleitutako kontratua, 2016rako aseguratutako arriskuan eragina duten elementu eta alderdien aldakuntzaren aseguramendua sartzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 502/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, onartzen duena 19/2016 konpromiso kredituaren transferentzia espedientea 18/2016 espedientea, 7.865 eurotan, "Auditoria plana 2015" aurrekontu partida funtsez hornitzeko, "Indesa 2010, SL" sozietatearen 2016ko kontu auditoretza kontratatze aldera, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak hala eskatuta.

Diputatuen Kontseiluaren 503/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, 96/2016, 97/2016 eta 98/2016 kreditu transferentziaren espedienteak onartzen dituena, guztira 8.465 eurotan, Ingurumen eta Hirigintza Sailaren partida batzuk funtsez hornitzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 504/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, 105/2016 kreditu transferentziaren espedientea onartzen duena, 13.979,91 euroko zenbatekoaz, "Lankidetzarako laguntzen elkartasun funtsak" izeneko partida funtsez hornitzeko, garapenerako lankidetzako proiektuak finantzatzeko 2016ko laguntzen deialdia ebazteko asmoz, Diputatu Nagusiaren Sailak eskatuta.

Diputatuen Kontseiluaren 505/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, 106/2016 kreditu transferentziaren espedientea onartzen duena, 100.000,00 euroko zenbatekoaz, "Garapen Iraunkorrerako Plana. Eguneratzea" eta "Lursailak eskuratzea" izeneko partida sortu berriak funtsez hornitzeko, plan hori berrikusi eta eguneratu dadin eta biodibertsitateko jardunetarako lursailak eskuratu daitezzen, Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskatuta.

Diputatuen Kontseiluaren 506/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, onartzen duena Gasteizko Udalak egindako herri jabariko ondasun higiezin baten erabileraren administrazio kontsezioa, zeina Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bisita unitaterako eta beste gizarte zerbitzu batzuetarako baita.

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 507/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, luzatu egiten duena minbizia duten adingabeen familiei laguntzeko programa bat gauzatzeko, Gasteizko udalarekin eta ASPANAFOHA-Haur Onkohematologikoen Gurasoen Elkartearekin izenpetutako hitzarmena.

Diputatuen Kontseiluaren 508/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, aldatu eta luzatzen duena Dulantzi herrian dagoen eguneko arretarako landa zentroa kudeatzeko eta hango mententze lanak egitearren Dulantziko, Barrundiko, Burgeluko eta Iruraiz-Gaunako Udalekin izenpetutako hitzarmena.

NEKAZARITZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 509/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, onartzen duena animalien osasun zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeko espediente; lizitazioaren prezioa, urtean, BEZa barne: zati finkoa, 385.999,99 euro; unitate prezioa, 414.420 euro, eta zati aldagarria (tasak): 180.000 euro. Zerbitzua emateko epea: 3 urte.

Diputatuen Kontseiluaren 510/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, onartzen duena Gasteizko Udalarekin hitzarmena izenpetzea, Gasteizko udalerriko landa bideen mantentze, egokitze eta hobetze lanak egiteko.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 511/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, onartzen duena "Instalazio elektrikoak mantentzeko, bide segurtasuneko datuak ustiatu eta errepedeetako kontrol zentroa kudeatzeko, hobetzeko jardunak egiteko, ustiapenerako elementuak ordeztzeko eta foru sareko errepedeetako neurketa egitasmoaren plangintza egin eta burutzeko zerbitzua" prozedura ireki bidez kontratatzeko espediente, 1.905.556,40. euroko aurrekontuaz (BEZa barne) eta 3 urteko gauzatze epearekin.

Diputatuen Kontseiluaren 512/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, onartzen duena “Arabako foru errepede sare osoa (ekialdea, 2017-2019) onik zaintzeko zerbitzua” prozedura ireki bidez kontratatzeko espedientea, 12.347.627,04 euroko aurrekontuarekin, BEZa barne, eta obrak gauzatzeko 3 urteko epearekin.

Diputatuen Kontseiluaren 513/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, onartzen duena “Arabako foru errepede sare osoa (mendebaldea, 2017-2019) onik zaintzeko zerbitzua” prozedura ireki bidez kontratatzeko espedientea, 12.347.627,04 euroko aurrekontuarekin, BEZa barne, eta obrak gauzatzeko 3 urteko epearekin.

Diputatuen Kontseiluaren 514/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, zuzentzen duena uztailaren 19ko 467/2016 Erabakian dagoen akatsa. Erabaki horren bidez, “Autobuses Cuadra SA” enpresari esleitzen zitzaion “Arabako Lurralde Historikoan bidaiarien herri arteko erabilera orokorreko errepede bidezko garraio erregularraren zerbitzu publikoa emakida bidez kudeatzeko kontratua (467/2016 BILBO-LOGROÑO)”

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 515/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, onartzen duena Martiodako Hurtado de Mendozatarren dorretxea zaharberritzeko lanak prozedura ireki bidez kontratatzeko espedientea; aurrekontua: 341.284,26 euro, BEZa barne; lanak egiteko epea: 3 hilabete.

Diputatuen Kontseiluaren 516/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, abuztuaren 3koa, onartzen duena Trebiñuko Konderriko Udalarekin hitzarmena sinatzea “Saretzen” programa finantzatzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 517/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, onartzen duena Añanako Kuadrillarekin hitzarmena sinatzea “Familian euskaraz” programa finantzatzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 518/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, onartzen duena Aiarako Kuadrillarekin hitzarmena sinatzea “Aiaraldea Euskaraz 2016” programa finantzatzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 519/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, onartzen duena Kanpezu - Arabako Mendialdeko Kuadrillarekin hitzarmena sinatzea “Familiekin elkarlanean Arabako Mendialdeko haurren eta gazteen euskararen erabilera indartzeko” programa finantzatzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 520/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, onartzen duena Guardia - Arabako Errioxako Kuadrillarekin hitzarmena sinatzea “Kalean bizi bizi” programa finantzatzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 521/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, onartzen duena Arabako Lautadako Kuadrillarekin hitzarmena sinatzea “Euskara hartu, euskaraz busti” programa finantzatzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 522/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, onartzen duena Zuaiako Kuadrillarekin hitzarmena sinatzea “Gorbeiapeko gazteak, euskaraz!” programa finantzatzeko.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 523/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, “Obras Públicas Onaindia, SA” sozietateari esleitzen diona 373.401,99 eurotan (BEZa barne) “Urduñako EUAtik Aloria, Artomaña eta Delika hornitzeko proiektu aldatuaren” ren obrak; gauzatzeko epea: 5 hilabete.

Diputatuen Kontseiluaren 524/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, “Contenedores Escor Vitoria” enpresari esleitzen diona Arabako garbigune eta landako bilketaguneen saretik datozen eraikuntza eta eraisketa hondakinen (EEH), bolumen handiko hondakinen eta inausketa eta lorezaintzako hondakinen kudeaketa zerbitzua, 2016rako esleipen prezioa 47.630,74 euro izango delarik (BEZa barne), eta gauzatzeko epea bi urte.

Diputatuen Kontseiluaren 525/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, onartzen duena prozedura irekiaren bidez kontratatzea “Nerbioiko parke linealeko ibilbide berdea eraikitzea Campo de Zamora-Olako Zabalibartik zehar, izeneko tartean, Amurrion” izeneko proiektua, 469.889,43 euroko aurrekontuarekin, BEZa barne, eta 5 ½ hilabetean gauzatzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 526/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, onartzen duena “Martiodako Suspertegiaren kudeaketa osoari dagozkion zerbitzuen” behin betiko likidazioa eta ezarritako bermea itzultzea.

Diputatuen Kontseiluaren 527/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, onartzen duena Ibarako (Aramaio) andel erregulazaile berriaren proiektuari dagozkion obren lan programa.

Diputatuen Kontseiluaren 528/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, onartzen duena aldatzea Araba Garapen Agentziarekin, Iruña Okako Udalarekin eta Langraiz Okako Administrazio Batzarrarekin saneamenduko hodi biltzailei buruz sinatutako hitzarmena.

Diputatuen Kontseiluaren 529/2016 Erabakia, abuztuaren 3koa, aldatzen duena “Labygema SL” enpresarekin gaur egun sinatuta dagoen kontratua, 8 araztegiak kudeatzeko dena eta guztira hilean 26.248,79 euroko zenbatekoa duena (BEZa barne), Gaubea eta Espejoko HUAen mantentze lanak, kudeaketa eta ustiapena sartzeko.